



Javier Clemente Espainiako futbol selekzionatzailea atzo txotx egiten.
JACOBA MANTEROLA

Astigarragako Sagardo Berriaren Egunak hasiera eman dio txotx denboraldiari

Javier Clemente futbol selekzionatzaile bizkaitarrak zabaldu zuen atzo lehen upela

Jone Larrañaga / Astigarraga

SAGARDOA edalontzian hautsi eta «hau da Astigarrako sagardo berria» esanez zabaldu zuen atzo Clementek denboraldia. Ofizialki sagardotegiak etzi trekiko diren arren, atzo gutxi batzuek izan zuten sagardo berria dastatzeko aukera. Guztiak bat etorri ziren: aurtengoa ederra da oso.

Joandako uda beroa eta lehorta izan denez, sagarrak ederki helduta jaso dituzte. Eta uzta onak sagardo ona eman du, kalitate handikoa. Adituen arabera, leuna, hurrintsua eta zapore onekoa da sagardo berria, «afizioa sortzen duten horietakoa».

Aurtengo produkziarako guztira 10 milioi kilo sagar erabilbi dira, horien artetik erdiak la Gipuzkoakoak bertakoak. Inaki Txueka Gipuzkoako Nekazaritza diputatuak azaldu zuenez, 10.000 landare berri aldatu dituzte Gipuzkoan, eta «esfortzu horren emaitza da produkziarako erabilbi dituzten sagarren % 50 bertakoak izatea».

Sagardoaren hiriburutik, Astigarragatik, sagardogileek antzinako tradizioari eusten egin dituzten ahaleginak gorlapatu zituzten atzo eta haien profesionaltasuna azpimarratu. «Izan ditugu une onak, eta kaskarrak, baina hemengo sagardogileei esker tradizioa gugana heldu eta indartzea lortu da», azaldu zuten.

Kalitatea hobetu eta merkatua zabaldu • Joxe Miel Bereziartua sagardogileen lehendakariaren arabera, aurten ere «ilusio» ekin diote denboraldiari: «Egunean-egunean sektorea aurrera egiten ari dela ikusteak, 1995eko sal-

Denboraldia San Sebastian bezperan, etzi, zabalduko den arren, Astigarraga eta inguruko sagardogileek atzo ospatu zuten Sagardo Berriaren Eguna. Ohitura dute jada sagardoa aurkeztu eta lehen upela irekitzeko ardurua pertsona ezagun bati ematea. Javier Clemente Espainiako futbol selekzionatzaileari egokitu zaio lan hori aurten.



Astigarragako udaletxean aurkeztu zuten ofizialki aurtengo sagardoa.
JACOBA MANTEROLA

menta onak kontuan hartuta, bide onetik goazela pentsarazten digu». Bereziartuak gogoratu zuenez, ordea, aurrerantzean dituzten erronkak handiak dira, oraindik ere: kalitatea hobetzeko bidean gora jarraitzea batetik, eta merkatua zabaltzea bestetik.

Horixe bera azpimarratu du Jauriaritzak sektoreari buruz egin berri duen txostenak. Kalitateari dagokionez, azken urte hauetan egin den hobetzea azpimarratu du txostenak, eta sa-

gardo batetik besterako zapore aldaketa nabarmen leundu dela jarri du adibidetzat.

Baina sektoreak aurrera egingo badu merkatua zabaldu egin behar duela gaineratu du. Izan ere, sagardoaren merkatua oso kontzentratua dago oraindik, botiletako sagardo guztiaren % 75 Gipuzkoan saltzen baita. Horrez gainera, produkzioaren ia erdia partikularrek eskuratzen dute zuzenean. Jauriaritzatik egindako azterketak garrantzi-

tsutat jo du apurka sagardo markak ezagutaraztea, hartara merkatuzatzea errazagoa izango litzateke-eta.

Dena den, txostenak etorkitzun oparora iragarri dio sagardoari. Produktuak gero eta harrera hobea du, eta gogor ari da lehiatzen kompetentziaren kontra, garagardoan eta ardoaren kontra alegia. Aurten, gainera, lehortaren ondorioz ardoa garestitu egin da, eta horrek mesede handia egingo dio sagardoari. X